



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ARABAKO LAN HARREMANETAKO GRADUATUEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

LEA 10/20 Proiektua -PROM- (2016)

Sumarioa:

TOCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEA) osoko bilkurak, 2016ko azaroaren 15eko bileran eta adierazitako kideek osatua zegoela, Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialaren Estatutuen (aurrerantzean, Estatutuak) aldaketari buruzko txosten hau eman du.

I. AURREKARIAK

1. 2015eko uztailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Erregistroen Zuzendaritzak Elkargoaren Estatutuen aldaketa bati buruzko txostena egiteko eskaera helarazi zion LEAri. Aldaketa horrek 8.1 artikuluari soilik eragiten zion, lanbidera sartzeko eduki beharreko tituluaren ingurukoari.

LEAk indarreko Estatutuak aztertzean ikusitakoaren arabera, Lehiaren Babeserako Legearen 1. artikulua balizko urraketa-zantzuak ondorioztatu zitezkeen aztertutako Estatutuetako manu jakin batzuetatik¹.

2016ko urtarrilaren 11n zehapen-prozedura abiarazi zen, eta Elkargoari jakinarazi zitzaion.

¹15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703), martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (BOE-A-2011-4117) eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak (BOE-A-2013-5940). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>



Zehapen-prozeduraren izapidean Estatutuak aldatu zituen Elkargoak, eta Justizia Sailari aurkeztu zizkion, onar zitzan. Aldaketa indarrean jartzeko, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren oniritzia behar da, eta EHAAan argitaratu behar da.

2. 2016ko maiatzaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan, Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa bat datorren lehiari buruz indarrean dagoen araudiarekin².

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

3. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau³. Eskumen horien helburua da benetako lehia sustatzea Euskadiko merkatuetan. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horrelako neurrien esparruan, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, besteak beste.

4. Espainiako Konstituzioa du oinarri gure antolamendu juridikoan elkargo profesionaleri buruz emandako arauak. Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du Konstituzioaren 36. artikulua: «Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarriko eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute.»

Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta LDL bete behar dute, bere osotasunean. Egoera horren iturburuan, Europar Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatzearen ondoriozko zenbait arau-aldaketa daude. Lanbide-elkargoei buruzko estatu-arudiak Zuzentarau hori baino lehenagoko erregulazio bat du oinarri: Elkargo Profesionalen Legea, 1974koa (aurrerantzean, EPL). EAEn, Euskal Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluen jardunari buruzko Legea (aurrerantzean, EEL). Dena dela, une honetan Zuzentarau hori Estatuan nahiz

² Elkargoaren indarreko Estatutuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2006ko azaroaren 16ko Agindu bitartez onartu ziren (2006ko azaroaren 16ko EHAA, 219. zk).

³ EAEn 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zenbakikoa, 2012ko otsailaren 9koa).



autonomia-erkidegoetan betearazteko hainbat xedapen daudenez, aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta horrenbestez, bai eta elkargo profesionalen funtzionamendu-araubidean ere. Kontuan hartzekoak dira, bereziki, Aterki Legea, Omnibus Legea eta EAEko 7/2012 Legea⁴.

18/1997 Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Hori dela eta, 18/1997 Legeak gidatu behar du Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofiziala, eta, zehazki, 2012an, Europar Batasuneko araudira egokitzeko, Lege horretan egindako aldaketen ondoren indarrean dagoen testuak. Arau horren bederatzigarren xedapen gehigarriak honela dio: «Elkargo profesionalen erregimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal

⁴ 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.

Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, Elkargo Profesionalei buruzkoa (1974ko otsailaren 15eko BOE, 40. zk), honako hauek aldatua: 74/1978 Legea, abenduaren 26koa (BOE-A-1979-697); 5/1996 Errege Lege Dekretua, ekainaren 7koa (BOE-A-1996-13000); 7/1997 Legea, apirilaren 14koa (BOE-A-1997-7879), 6/1999 Errege Lege Dekretua, apirilaren 16koa (BOE-A-1999-8577); 6/2000 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa (BOE-A-2000-11836); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2009-20725); 5/2012 Legea, uztailaren 6koa (BOE-A-2012-9112). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1974-289&b=2&tn=1&p=20091223>.

18/1997 euskal Legea, azaroaren 21ekoa, tituludun lanbideen eta elkargo eta kontseilu profesionalen jarduna arautzen duena (1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.).

Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa, Aterki Lege deitua (2009ko azaroaren 24ko BOE, 283. zk); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena, Omnibus Lege deitua (2009ko abenduaren 23ko BOE, 308 zk.); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentzura egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena (2012ko apirilako 30eko EHAA, 84. zk.).



horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen diren unean».

5. Elkargoek lehiari buruzko arautegia bete beharko dute, bai estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak, eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, Estatutuen testua kontuan izan gabe, Elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako⁵.

Horregatik, onuragarria da aztertutako Estatutuek eta Espainiako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren Estatutuek ezarritakoa: hau da, Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoetako akordio, erabaki eta gomendioek Lehiaren Babeserako Legearen mugak gordeko dituztela, eta kasu guztietan egokituko zaizkiola Legeari⁶.

6. Lanbide-elkargoei buruzko estatu-legeak orokorki aurreikusten duen funtzioa, hots, lanbidea ordenatzekoa, legeak ematen dituen eskumenen muga-barruan soilik baliatu daiteke⁷.

Adierazi behar da, horrez gain, lanbide- eta enpresa-jarduerak gauzatzen dituztenen askatasuna mugatzen duten erregulazioak ez daudela administrazio-agintari edo -korporazioen arielen mende⁸.

EPLren 5. artikuluko idazketa desegokiak (izan ere, ez da egokitu zerbitzuen Zuzentzura eta gure ordenamendu juridikotik premia ezabatu behar da) ez ditu lanbide-zerbitzuen eskaintza ordenatu dezaketela pentsatzera eramanez behar lanbide-elkargoak.

⁵ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa. (RC 5763/2006). Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala (RC 9449/2004). Auzitegi Gorenaren 2008ko azaroaren 4ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala (RC 5837/2005).

⁶ Ikus abenduaren 1eko 1415/2006 Errege Dekretuaren (Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialetako Estatutu Orokorra onartzen dituena) 6. artikuluko bigarren zenbakia. (2006ko abenduaren 16ko BOE, 300. zk).

⁷ Konstituzio Auzitegiaren 93/1992 Epaia, ekainaren 11koa, babes eskeko 1645/1988 errekurtsioan emana.

⁸ Konstituzio Auzitegiaren 83/1984 Epaia, uztailaren 24koa, 80/1983 inkonstituzionaltasun-arazoan emana.



7. Lehiaren Euskal Agintaritzak bi motatako gomendioak emango ditu txosten honetan: araudiaren balizko urraketa agerian jartzen dutenak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten Estatutuetao pasarteen aldekoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

Estatutuekin loturan egingo diren gogoetak lehia sustatzeko ikuspuntu soiletik egingo dira, Estatutuak aldatzeko administrazio-onarpenaren prozeduraren barruan, alde batera utzita Ikerkuntza Zuzendaritzak Elkargoari bideratutako zehapen-prozedura, Lehiaren Euskal Agintaritzza honek dagokion prozedura-fasean ebatziko duena.

8. Txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarritzko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu Estatutuetao zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

III. GOGOETA LEHIARI BURUZKO ARAUAK DIRELA-ETA

1. Elkargokide izatea

A. Elkargo bateko kide izan beharra

9. Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua jasotzen du Elkargoei buruzko arauketa konstituzionala, eta Konstituzio Auzitegiak, artikulua hori interpretatuta, honako hau ezarri du: «Elkargo bateko kide izan beharra konstituzionalki zilegi izango da, interes publiko bati zerbitzua emateko beharragatik justifikatuta dagoenean»⁹. Horrenbestez, Konstituzio Auzitegiak legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, elkargo profesioaletara biltzeko askatasuna eta lanbidea aukeratzeko askatasuna mugatu ditzan –bereziki elkargoko kide

⁹ Konstituzio Auzitegiaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Ildo berean, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituen, eta Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia, Toki Administrazioako Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienean elkargoko kide nahitaez izatea beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak ez dituztelako garatzen lanbidearen antolamenduaren arabera.



egitera behartuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean¹⁰.

Aterki Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- Ordena publikoko, segurtasun publikoko, osasun publikoko edo ingurumenaren babeseko arrazoiak direla-eta justifikatuta dagoenean (12. artikulua).
- Eskakizuna ez denean diskriminatzailea, ez zuzenean, ez zeharka, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera (5. artikulua).
- Beharrezkoa denean; hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean (5. artikulua).
- Lortu nahi den helburua lortzeko egokia denean; hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargo bateko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hoberik ez dagoenean (5. artikulua).
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arrazoitzen denean (5. artikulua).

EAEn, EELren 30.1 artikulua arautzen du lanbide batean jarduteko elkargo bateko kide egiteko betebeharra eskatzeko aukera. Xedapen horrek hau ezartzen du: «elkargoetako lanbideetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kidea izatea, dagokion legeak horrela jasotzen duenean»¹¹. Horrenbestez, elkargo bateko kide izateko obligaziozkotasuna lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da zuzenbidearen arabera kotzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege-mailako arauen batean jaso behar da Lehia Defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izango badu¹².

¹⁰ Ikus, halaber, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epai hauek: –As. Le Compte, Van Leuven eta De Meyere kasua Belgika, edo 1993ko ekainaren 30ekoa – Sigurdur A. Sigurjónsson kasua Islandia, A seriea, 264. Azken horretan neurritz kanpokotzat jotzen da taxilari bati taxi-gidarien erakunde bateko kide egiteko legez ezarritako betebeharra.

¹¹ 2013ko urtarrilaren 17ko Konstituzio Auzitegiaren 3/2013 Epai (2013ko otsailaren 12ko EAO, 37. zenbakia), Andaluziako elkargo profesionalen buruzko legearen gainekoa da; haren arabera, Estatuaren eskumen eskusiboa da elkargoan derrigorrez kide egin beharra ezartzea.

¹² Aipatutako 4. artikuluko «Legeak salbuetsitako jokaerak» epigrafeak honako hau dio: «Lehiaren defentsaren arloko erkidegoko xedapen behin-behineko aplikazioari kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei». Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: «Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira».



Oro har, Omnibus Legeak lanbidera sartzeko eta lanbide batean jarduteko murrizketak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargo bateko kide izateko beharraren erreforma¹³. Une honetan, eta elkargo profesionalei buruzko Legearen 3.2 artikulua araberan, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean soilik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena dela, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, eta Omnibus Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraituz, hura indarrean jarri zen unean nahitaezko zirenak finkatu dira. Horregatik, aldi baterako, lehendik zeuden elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoeren legezkotasuna mantendu da, maila egokia ez duten arauan ezarrita egon arren.

10. 1415/2006 Errege Dekretuaren (Espainiako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren eta Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak onartzen dituena) 18.1 artikulua jarduera profesionalaren baldintzak arautzen ditu eta honako hau ezartzen du¹⁴:

Nazio osoan lan-harremanetako graduatu gisa jarduteko nahikoa izango da elkargo bakar batean inskribatuta egotea, haren lurralde-eremua dena dela. Elkargoek ezin izango diete komunikaziorik edo gaikuntzarik eskatu dagokien elkargoaren lurraldetik kanpo jarduten duten lan-harremanetako graduatuei, ezta jasotzen dituzten zerbitzuen truke beren kideei eskatu ohi ez dizkieten ordainak ordain ditzatela ere, elkargoko kuotak horiek estaltzen ez dituztenean. Nahitaezko atxikipena helbide profesionalaren dagokion elkargoan gauzatuko da.

Artikulu hau 503/2011 Errege Dekretuak 2011n gauzatutako aldaketaren ondoren idatzi da (artikulu bakarra, 6. atala), hau da, Omnibus Legea indarrean

¹³ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira», baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez».

¹⁴ Estatutuek 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, berek gidatuko dute Elkargoa; horietan aurreikusten ez den guztian, aldiz, 3549/1977 Errege Dekretuak onartutako lan-harremanetako graduatuen elkargo ofizialen Estatutuek eta aplikazioak gerta daitezkeen gainerako lege-xedapenek. 1415/2006 Errege Dekretuaren (Espainiako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren eta Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Estatutu orokorrak onartzen dituena) xedapen indargabetzaile bakarrak Errege Dekretu hori indargabetu du.



sartu ostean¹⁵. Egia da Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen eta Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialetako Kontseilu Nagusiaren Estatutu Orokorren idazketak elkargokide izateko beharra ezartzen zuela, 2011n aldatua izan aurretik; hala ere, Lehiaren Espainiako Batzordeak baieztatu du lege-aldaketetara egokitzeko onartu diren elkargo-estatutuetan saihestekoak direla betebeharrak horrekiko erreferentzia guztiak edo, gutxienez, aipatu behar dela betebeharrak lege-lerrunari ez dagokion arau batean ezartzen dela, eta iragankorra dela betekizun hori lege-lerruneko arau batean sartu arte¹⁶. Elkargoko kide egin beharra Estatuko lege batean zehazten ez bada, legearen aurkakoak izango dira *Omnibus legean* xedatutakoak urratuz onartzen diren xedapenak¹⁷.

11. Estatutuetan, xedapen honetan lantzen da Elkargoko kide izateko beharra:

9. artikulua

Lanbidean elkargoaren lurralde-eremuan aritzeko, beharrezkoa da bertan edo dagokion elkargoan sartua egotea; langile-helbide bakarra edo nagusia izango da, Estatutuetako 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez zaie aurretik elkargoko kide egiteko eskatuko, zerbitzuak beren kasa eskaintzen dituztenei, Europako erkidegoetako kide diren estatuetako herritarrei, aurretik behin betiko ezarrita baldin badaude aipatutako edozein estatutan, kasu bakoitzean dagokien lanbideei aplikatu dakizkiekeen erkidegoko arauak xedatzen dutenaren arabera. Hori guztia bere jardunaren berri dagokion elkargoari emateko derrigortasuna alde batera utzi gabe, arauen arabera eska daitezkeen agiriak aurkeztuta eta arauak ezartzen den bezala.

2. Administrazio- edo lan-zuzenbideak araututako zerbitzu-harreman baten bidez euskal administrazio publikoren batekin lotura duten lan-harremanetako graduatuek ez dute lan-harremanetako graduatuen elkargoan matrikulatu beharrik. Hala ere, lanbidea modu pribatuan gauzatu ahal izateko beharrezkoa izango da elkargoko kide egitea.

12. Lan-harremanetako graduatuen lanbidean jarduteko, egun, nahitaezkoa da Elkargoko kide egitea, eta horrek mugatu egiten ditu bai lehia bai lanbidean askatasunez aritzea; azken batean, Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluan

¹⁵ 503/2011 Errege Dekretua, apirilaren 8koa, abenduaren 1eko 1415/2006 Errege Dekretua (Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua onartzen duena) aldatzen duena. (2011ko apirilako BOE, 100. zk.).

¹⁶ LEHIAREN ESPAINIAKO BATZORDEA. *Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruzko txostena*. Madril, 2011, 42. or. Hemen eskuratu daiteke: https://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_y_Estudios_Sectoriales/2012/Informe%20Colegios%20Profesionales%20tras%20Directiva%20de%20Servicios.pdf.

¹⁷ Lehiaren Espainiako Batzordea, *Lanbide-elkargoei buruzko txostena...* op. cit., 44. or.



aitortzen den lan egiteko eskubidea urratzen du. Mota horretako mugek interes publikoko eta ondasun juridikoen babeserako arrazoi boteretsuetan bakarrik izan dezakete lege-oinarria, horiek elkargora nahitaez bildu beharreko lanbidearen jardun askea baino indar gehiago dutenean.

Lan-harremanetako graduatuen lanbidean jarduteko elkargokide izateko gaur egungo betebeharra Zerbitzuen Zuzentzarauaren eta Omnibus Legearen osteko erregelamendu-mailako arau batean dago jasota, eta bi arautako manamenduak urratzen ditu.

B. Elkargoko kide egiteko eskakizunak: Onartua izateko eragozpenak eta lanbidean jarduteko bateraezintasunak

13. EELren 5.1. artikulua baldintza hauek ezartzen ditu lanbide-jarduera gauzatzeko:

- «a) Dagokion tituluaren jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.
 - b) Ez egotea desgaitasun profesionalerako egoeran.
 - c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.
 - d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.
2. Legeak hala araututa soilik, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.»

14. Estatutuek, 8. artikuluan, baldintza hauek ezartzen dituzte Elkargoko kide egiteko:

- A) Lan-harremanetako graduatu titulua, edo gaur egun dagoen edo etorkizunean lan-harremanetako graduatuaren egitekoak bete ahal izateko gaitzeko sortzen den beste edozein titulazio edukitzea.
- B) Espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa izatea, nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoa edo legezko jaregitea izan ezik. Adinez nagusia izatea eta ezintasun-arrazoirik ez edukitzea.
- C. Lanbidea bete ahal izateko desgaitasunarik jaso ez izana, edo bestela, zigorra jaso izanez gero, birgaituta egotea.
- D. Onartua izateko eragozpenik ez izatea, karreratik, kidegotik edo korporaziotik bananduta ez egotea, eta beste edozein lanbide-elkargotik zehapena dela medio baja ez hartu izana, eta elkargokide gisa dituen betebeharrak egunean izatea kargua uzterakoan. Baja borondatez hartu baldin bada, ziurtagiri bidez egiaztatuko da.
- E) Oraingo Kontseilu Nagusiko gordailuen kontuan edo Autonomia Erkidegoen Lanbide Elkargoen Legearekin bat sor daitekeenean araubidez ezartzen den fidantza gordailatua izatea.



F) Eskatu den kidegotza mota kontuan hartuta, Gobernu Batzordeak eskatutako agiriak aurkeztea. Lanbidea nor bere kasa gauzatzeko mota baldin bada, nahitaezkoa izango da erantzukizun zibileko arriskuengatik aseguru-kontratua sinatua izatea.

Era berean, 24. artikuluan honako hau ezartzen dute:

Lanbidearen jardunarekin bateraezinak dira:

- A) Lan-harremanetako graduatuen lanbidean zuzenean edo zeharka eragin edo kaltetu dezaketen erakunde, merkataritza-entitate eta gainerako ente publiko edo pribatueta diharduten titulatuak.
- B) Intrusismoagatik edo lanbidean modu klandestinoan edo iruzur eginez jarduteagatik zehatuak izan diren lan-harremanetako graduatuak, zehapena eman denetik bi urteko epean gutxienez.
- C) Beste lanbide-elkargoren batetik edo elkargo pribaturen batetik lanbidearen jardunean administrazioaren erabakiz edo epe irmo bidez bidali dituztenak, lehen aipatutako epe bererako.

15. 8. artikuluko D letrak eta 24. artikulua ezartzen dute balizko zein kasutan galarazten zaion Lan Harremanetako Graduatuari Elkargoan kidetzea, edo zein kasu diren lanbide-jardunarekin bateraezinak, EELn aurreikusitakoez kanpo. Halakoek Lan Harremanetako Graduatuak emandako zerbitzuen merkatura sartzeko lehia murrizten dute, eta EELk legearentzat gorde du horien zehaztapena. Horiek horrela, sarbide-mugak edo lanbide-jardunarekiko bateraezintasunen araubidea arautzean, Legea igorritz soilik arautu ditzala eskatzen zaio Elkargoari.

C. Elkargokidetze bakarra estatuko lurralde osorako

16. EELren 39.4. artikuluan jasotakoaren arabera, «Elkargoek ezin diete exigitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta elkargoko kuotak bere baitan ez dituen beste zerbitzu batzuegatik inolako beste ordainik ere, beren kideei normalean prestazioengatik eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte». Halaber hartu behar dira aintzat Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua eta EPLren 3.3 artikulua, zeinak, Europar Batasuneko arabei jarraikiz, xedatzen baitu ezen baldin eta profesio bat lurralde-elkargotan antolatzen bada, orduan nahikoa dela horietako batean kidetzea lurralde nazional osoan jardun ahal izateko.

17. Estatutuen 13. artikulua honako hau xedatzen du:

1. Lan Harremanetako Graduatuaren Elkargoaren lurralde-eremuan jardun ahal izango dute, bertara sartzeko beharrik gabe, lan-harremanetako graduatuen beste elkargo



batekoak izan eta Kontseilu Nagusiak edo Autonomikoak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenak, arauz ezartzen den moduan.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan sartzen diren profesionalak estatutu hauetako arau deontologikoak eta diziplinakoak bete beharko dituzte.

18. Esan bezala, EPLren 3.3 artikuluan xedatutakoaren ildoan, lanbide bat lurraldekako elkargotan antolatzen denean, nahikoa izango da haietako batean kidetuta egotea lurralde osoan jardun ahal izateko.

EPLk agindutakoari jarraikiz, Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialetako Estatutu Orokorretan ezartzen da Elkargoek ezingo dietela komunikaziorik edo gaikuntzarik eskatu dagokien elkargoaren lurraldetik kanpo jarduten duten lan-harremanetako graduatuei, ezta jasotzen dituzten zerbitzuen truke beren kideei eskatu ohi ez dizkieten ordainak ordain ditzatela ere, elkargoko kuotak horiek estaltzen ez dituztenean¹⁸.

Estatutuek ezin diete, ez zuzenean, ez Kontseilu Nagusiaren nahiz Autonomiakoaren bitartez, inongo eskakizun gehigarririk ezarri beste lurraldeetako elkarte batzuetara bildutako profesionali Elkargoaren lurralde-eremuan lanbidean aske jarduteko. Beraz, Estatutuetako manuan ezabatzekoa da Araban Lan Harremanetako Graduatu lanbidearen jarduna Kontseilu Nagusiak nahiz Autonomiakoak ezarritako eskakizun gehigarrien menpe egoteko aukerari egindako erreferentzia.

Bestalde, aztertutako manua baimenaren eta ordainketaren zenbait baldintzatzaille ezartzen zizkieten Lan Harremanetako Graduatuen beste Estatu Elkargo Ofizialetako elkargokideei Arabako lurraldean lan-harremanetako graduatu lanbidean jarduteko, eta egokitzat jo behar da estatutuak aldatzean baldintzatzailleok ezabatu izana.

2. Lanbideko ordainsariak

A. Ordainsari orientagarriak eta lanbideko ordainsariei buruzko Elkargo-txostenak

19. Omnibus legeak ezabatu egin zuen EPLren 5. artikulua elkargo profesionali esleitzen zien funtzio hura –ordainsari orientagarriak ezartzea, hain zuzen–, eta berariaz debekatu zuen halakorik egitea, 14. artikuluan¹⁹.

¹⁸ Ikus abenduaren 1eko 1415/2006 Errege Dekretuaren (Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialetako Estatutu Orokorrak onartzen dituena) 18. artikulua.

¹⁹ EPLren 14. artikulua: ordainsariei buruzko gomendioak debekatzeko: «Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionali buruzko baremo



EPLren Xedapen Gehigarrian dator salbuespen bakarra, zeinak aukera ematen baitu elkargo profesionalek «irizpide orientagarriak» (ez baremoak) prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko besterik ez. Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

Kostuak tasatzeko irizpideak ezartzea dela eta, lehenik eta behin argitu behar da arauak «baremo» orientagarriak ez, baizik eta «irizpide» orientagarriak aipatzen dituela. Irizpide orientagarriak honela definitzen dira: «Kostuak tasatzeko aintzat hartu behar diren elementuak»²⁰. Ezin da «irizpidetzat» hartu elementu horiek kasuan-kasuan aplikatuta lortzen den emaitza kuantitatiboa. Kasu horretan prezio edo ordainsaritzat hartu behar genuke hori, eta, ondorioz, debekatutako jardute gisa.

Bestalde, EPLk 5.o) artikuluan ezartzen du lanbide-elkargoen funtzioetako bat dela lanbideko ordainsariak eztabaidagai dituzten administrazio- edo judizio-prozeduren berri ematea.

20. Estatutuek modu honetara erregulatzen dute auzi hori:

5. artikulua

1. Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, irailaren 21eko 18/1997 Legearen (Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa) 24. artikulua esleitzen dizkion eragitekoak.

2. Eskumen orokorra alde batera utzi gabe, oinarritzko egiteko hauek ditu atxikita: (...)

n) Lanbideko ordainsari-baremo orientagarriak ezartzea.

s) Lanbideko ordainsariak eztabaidatzen direnean, prozedura judizialetan edo administrazio-prozeduretan txostenak igortzea.

63. artikulua

Gobernu Batzordeak ondoren aipatzen diren batzordeak sortu ahal izango ditu, behin betiko nahiz aldi baterako izaerarekin; batzorde horietako karguak ohorezko izaera izango dute.

(...) Etika eta lanbide-sarien batzordea. (...) lanbide-sari orientagarrien eguneraketaren jatorriaren berri emango du, elkargokideen ordainsarien aurka egin litezkeen erreklamazioei buruz duen iritzia adieraziz.

orientagarririk, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

²⁰ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 44. or.



21. Elkargoak, beste aldaketen artean, Estatutueta 5.2 artikuluko n) letra ezabatzea onartu du. Halaber, 63. artikuluan ezabatu egiten du Gobernu Batzarrak zeukan ahalmena; zehazki, ordainsari orientagarrien eguneraketari buruzko txostena egiteko Lanbideko Ordainsarien Batzordea eratzekoa. Aldaketa horiek egokitzat jotzen dira; izan ere, ordainsari-baremoak ezartzea Legean berariaz debekatutako jokabidea da, eta Lehiaren Babeserako Legea urratzen du. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) Madrilgo eta Alcalá de Henaresgo Elkargoak zehatu ditu duela gutxi, beren webgunean lanbideko ordainsariak argitaratu baitituzte²¹.

22. Lanbideko ordainsariak eztabaidagai dituzten judizio- nahiz -administrazio-prozeduren berri emateari dagokionez, honako hau adierazi behar da Elkargoaren funtzio horren inguruan: EPLk Lanbide Elkargoari esleitutako funtzioa bada ere, berori baliatzeak lehiaren aurkako eragina izan dezake; izan ere, ordainsariei buruzko gomendioak finkatzeko debekuak debeku, Elkargoak bere txostenaren bitartez ordainsarien inguruan adierazitako iritziak ordainsariak finkatzera eraman lezake. Beraz, zeregin hori baliatzean, lehiaren kontrako portaerarik ez izaten saiatu behar du Elkargoak.

B. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua

23. EELk 24.f artikuluan ezarritakoaren arabera, elkargoaren berezko eginkizuna da, besteak beste, «hartzekoak, sariak eta ordainsariak kobratzea, elkargoko kideek eskatuz gero eta, betiere, elkargo bakoitzeko estatutueta zehazten diren baldintzetan».

EPLren 5.p artikulua arabera, elkargoaren eginkizuna da, halaber, «arduratzea, elkargoaren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik, haien hartzekoen, sari en edo ordainsari profesionalen kobrantzaz, betiere, Elkargoak horretarako zerbitzu egokiak sortuak dituen eta Elkargo bakoitzaren Estatutueta zehazten diren baldintzetan».

24. Estatutueta honako hau ezartzen dute:

5. artikulua 1.- Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, irailaren 21eko 18/1997 Legearen (Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa) 24. artikulua esleitzen dizkion eragitekoak.

²¹ MLBNren Ebazpena, 2016ko irailaren 15ekoa (Espediente: SAMAD/09/2013 ICAM-EN LANBIDEKO ORDAINSARIAK), eta MLBNren Ebazpena, 2016ko irailaren 15ekoa (Espediente: SAMAD/09/2013 BIS ICAAH-REN LANBIDEKO ORDAINSARIAK).



(...) n) Lanbide-ordainsariak kobratzeaz arduratzea, elkargoak zerbitzu hori sortua duenean; betiere elkargokideak bere kabuz eta modu adieraziz eskatzen duenean, estatutu hauetan ezarritako baldintzekin eta kasuekin bat.

25. Ordainsariak kobratzeko elkargo-zerbitzua elkargoek beren kideen jarduera kontrolatzeko tresna posibletzat jo da²². Ildo horretan, gogoan izan behar da Elkargoaren jarduna ez dela bideratu behar, ez zuzenean ez zeharka, prezioak finkatzera edo orientatzera; beraz, zeregin hori baliatzean, lehiaren kontrako jokabideetan ez erortzen saiatu behar du Elkargoak.

3. Oniritzia

26. EELren 24. artikuluan, lanbide-elkargoen berezko eginkizunak arautzen dira. Zehazki, i) letran, eginkizun hau ezartzen da: «bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionaleri oniritzia ematea, baina soilik bezeroek (herri-administrazioak barne) berariaz eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean».

Indarrean dagoen araudia 1000/2010 Errege Dekretua da (elkargoaren nahitaezko onespeneri buruzkoa), eta bertan ez da ezartzen profesional horiek gauzatutako ezein lanik²³.

EPLren 13. artikulua araberaren arabera, oniritziaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ziurtatzea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela bermatzea, dena delako lan horri aplikatzen zaion araudiaren arabera. Oniritziak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokienez. Bestalde, ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak, aldeek askatasunez hitzartu ahalko baitituzte. Halaber, ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboaren kontrol teknikoa. Elkargoaren oniritzia ezinbestekoa den kasuetan, onespeneraren kostuak arrazoizkoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta ez diskriminatzailea ere.

²² «Ordainsariak Elkargo profesionalen bitartez kobratzeak lehia murrizteko arrisku handia dakar. Alde batetik, kideen artean alde aurretik ordainsarien prezioa adosteko, merkatua partitzeko edota konpentsatzeko itun bat badago, orduan kobrantza zentralizatzea kontrol-mekanismo bilaka liteke, aztertzeko ea profesionalak itun hori betetzen duten ala ez. Bestalde, azaldutakoaren moduko lehiaren kontrako itunik egon gaberik ere, beren kobrantza Elkargoaren bitartez bideratzen dituzten profesionalen kopurua handia baldin bada, horien buruzko informazioa zabaltzeko lehiaren murrizketak gertatzea erraz lezake» (LEHIAREN ESPAINIAKO BATZORDEA. *Zerbitzu Zuzentaruaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionaleri buruzko txostena*. Madril, 2012ko apirilaren 26, *op. cit.*, 73. or.).

²³ 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoa (2010eko abuztuaren 6ko BOE, 190. zk.).



Elkargoek argitaratu egin behar dute oniritziaren kostua, eta telematikoki izapidetu ahal izango da.

Horrez gain, artikuluko 3. zenbakiak honako hau gaineratzen du: «Elkargoak ikus-onetsitako lan profesional batek kalteak eraginez gero, eta horren egilea bada erantzule, Elkargoa izango da erantzule lan profesionala ikus-onesteko unean Elkargoak nabarmendu izan beharko zituen akatsek eragindako kalteez, lan jakin horretan ikus-onetsi diren elementuekin lotura zuzena dutenez».

27. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

5. artikulua 1.- Arabako Lan Harremanetako Graduatuaren Elkargoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, irailaren 21eko 18/1997 Legearen (Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa) 24. artikulua esleitzen dizkion eragitekoak.

2.- Eskumen orokorra alde batera utzi gabe, oinarritzko egiteko hauek ditu atxikita: Elkargoak, bere helburuak betetzeko, azaroaren 21eko EAeko 18/1997 Legearen 24. eta 25. artikuluetan zehazturiko hurrengo eginkizunak izango ditu: (...)

l) Legez eska daitekeenean, elkargokideen lan profesionalak ikuskatzea.

28. 1000/2010 Errege Dekretuak ez du zerrendatzen, lan-harremanetako graduatu batek egin dezakeen lan profesionalen artean, nahitaez onetsi beharrekorik; beraz, artikuluko hori aldatu behar da, adieraz dezan Legearen arabera ez dela nahitaezkoa Elkargoaren oniritzia.

4. Profesionalak ordezteko gaien zuzendaritzan

29. EPLk 5.i. artikuluan ezartzen duenez, Lanbide Elkargoei dagokie beren eskumenpeko eremuan elkargokideen lanbide-jarduera erregulatzeko funtzioa. Hala ere, gaien zuzendaritzan profesionalak ordezteari dagokionez ezarrita dauden murrizketa motak elkargoaren funtzio horretatik harago doaz, argi eta garbi, eta Lehiaren Babeserako Legea urratu dezakete.

Lehiaren Espainiako Batzordeak adierazi duenez, merkatuaren eraginkortasunaren ikuspuntutik honako hau da egokiena: bezeroak hala eskatzen duenean eta harentzat bizkorren eta merkeen den moduan ordeztu ahal daitezela profesionalak²⁴.

30. Indarreko Estatutuek honako hau ezartzen dute:

²⁴ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 83. or.

**20. artikulua**

1. Lan-harremanetako graduatuek debekatuta daukate aurretik beste lankideren bati esleitu zaion edozein gaietaz arduratzea, begiruneko arau gisa baimena idatziz eskuratu ez badute.

Lan-harremanetako graduatuak ezingo du bezero baten lanbide-gaiaren zuzendaritza hartu, bezeroak ez badu egiaztatzen lehen aholkuak ematen zizkion lan-harremanetako graduatuaren lanbide-sariak ordainduta dituela. Lanbide-sariak ordainduta ez baldin baditu, lan-harremanetako graduatu berriak Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio, gaiaren ardura hartu eta hurrengo 24 orduetan.

72. artikulua Lan-harremanetako graduatuek egindako faltak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke. (...)

3.- Falta astunak dira:

(...) l) Benia edo baimena hemen ezarrita bezala eskatzeko betebeharra ez betetzea.

Aldatutako Estatutuek honako hau ezartzen dute:

20. artikulua Aurrez beste kide bati emandako zeregin profesional bat bere gain hartzen duen lan harremanetako graduatuak, jakinarazi egin beharko dio hasiera batean lana hartu duen horri, begiruneko arau gisa.

72. artikulua Lan-harremanetako graduatuek egindako faltak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

3.- Falta astunak dira:

(...) k) Benia edo baimena hemen ezarrita bezala eskatzeko betebeharra ez betetzea.

31. Estatutuen 20. artikulua aldaketak ezabatu egiten du lan-harremanetako graduatuak beste kide batek zuzendutako gai batez haren beniarik gabe eta ordezkaturako profesionalaren ordainsariak ordainduta daudela akreditatu gabe arduratzeko debekua. Estatutuetan arlo horretan egindako aldaketak ordeztu den profesionalari jakinaraz dakiola eskatzen du soil-soilik eta, lehiaren ikuspuntutik, egokitzat jo behar da hori.

Hala ere, ezin da ulertu kortesia hutseko betebeharrak ez betetzeak, jakinarazpena den moduan, arau-hauste astuna izatea eta dagokion ondorio zehatzailea eragitea, Estatutuen 72.3.l artikulua ezartzen duen moduan. Horregatik, zehapena ezabatu behar da, ondorio zehatzaileak ez duelako gordetzen koherentziarik kortesia hutseko betebeharrak formal bat ez betetzearekin, eta profesionalak aldatzeko murrizketari eusten diolako.



5. Elkargoaren erreakzioa lanbideko intrusismoa eta lehia desleialeko kasuetan

32. 18/1997 Legearen 11.2 artikulua intrusismoa eta arauz kanpoko beste zenbait lanbide-jarduketa erregulatzen ditu; aditzera ematen duenaren arabera, honako hauek hartuko dira lanbideko arauz kanpoko jardueratzat: lanbideko arau deontologikoak urratzea; lanbidean behar den arretaz ez jardutea eta, ondorioz, elkargokidearen zerbitzu profesionalak hitzartzen dituztenen interesei kalte egitea; eta lehia desleiala egitea, Lehia Babesteari buruzko Legean, Lehia Desleialari buruzko Legean eta profesionalen elkargo bakoitzak lehia desleialari buruz emandako jarraibideetan eta Publizitateari buruzko Lege Orokorrean agindutakoaren arabera.

Arau horretan ez da inola ere jasotzen elkargoek lanbideko intrusismoa jazarri behar dutenik, ezta lanbidearen interesei eragiten dieten jardun ilegalak edo irregularrak ere. Betebehar hori 18/1997 Legearen 1. artikuluan zehaztutako xede orokorraren barnean sartzen dela pentsatu daiteke, elkargoko kide diren pertsonen interes profesionalak defendatzeari eta elkargoek eskainitako zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen interesak babesteari buruzko xede orokorrean, alegia.

33. Indarreko Estatutuek honako hau ezartzen dute:

5. artikulua 1.- Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, irailaren 21eko 18/1997 Legearen (Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoa) 24. artikulua esleitzen dizkion eragitekoak.

(...) p) Bidegabeko lehia eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioekin lankidetzaz bultzatuz.

63. artikulua.- Gobernu Batzordeak ondoren aipatzen diren batzordeak sortu ahal izango ditu, behin betiko nahiz aldi baterako izaerarekin; batzorde horietako karguak ohorezko izaera izango dute.

(...) Intrusismoaren eta bidegabeko lehiaren batzordea.

Batzorde horren helburua pertsona, entitate, enpresa-elkarte eta sindikatuei lan-harremanetako graduatuen eskumenen eremuan sartzea eragozteko da, baita bidegabeko lehia eragin dezaketen egintzak antzematea ere, urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean azaltzen den bezala. Horretarako, administrazio-espeditente eta ekintzei buruzko proposamenak egingo dizkiote Gobernu Batzordeari, dagokion jurisdikzioaren aurrean, jakinarazten diren salaketa eta agirien berri eman ondoren.

72.1 artikulua. Lan-harremanetako graduatuek egindako faltak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

2.- Falta oso astunak dira:



(...) d) Lanbide-intrusismoa eta hori estaltzea.

3.- Falta astunak dira:

(...) h) Bidegabeko edo legezkoa ez den lehia dakarten egintzak burutzea.

34. Elkargoaren funtzioa eskumeneko organoei intrusismo-jarduerak eta lehia desleiala jakinaraztera mugatu behar da, dagokion araudia aplikatu dadin²⁵. Diziplina-neurriak hartu ahalko dira, baina intrusismoko edo lehia desleialeko jokabideak daudela adierazten dituen ebazpen judizial bat dagoenean soil-soilik²⁶.

6. Elkargoa elkargokideen lehia desleial gisa

35. Lehia Desleialaren Legearen 15. artikulua ezartzen du «arauak urratzea» lehia desleial izan daitekeela.

Bestalde, EELren 24. artikulua j. letran ezartzen duenez, eskumena duten organo eta erakundeek eskatzen dizkieten edo beren ekimenez lantzen dituzten txostenak emango dituzte.

Amaitzeko, EELren 5. artikulua Elkargoko kidea izateko betekizunak ezartzen ditu:

«1. Jarduera profesional tituludun batean aritu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

a) Dagokion tituluaren jabe izatea, lege honetako 2.1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

b) Ez egotea desgaikuntza profesionaleko egoeran.

c) Legeek ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuren batean ez egotea.

d) Elkargoko kidea izateko arauak, halakorik bada, betetzea.

2. Legeak hala araututa soilik, aurreko baldintzez bestelako baldintzak ezarri ahal izango dira.»

36. Estatutuek honako hau jasotzen dute:

85. artikulua

Hauek dira elkargoaren baliabide arruntak:

²⁵ Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostenaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuaren Kontseiluaren Estatutuei buruzkoa) 17. zenbakia. Hemen eskuratu daiteke:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/Informe%20Consejo%20Graduados%20Sociales.pdf.

²⁶ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 75. or.



C) Ordaindutako txosten, irizpen, azterketa eta bestelako zerbitzuak lantzeko ezartzen diren eskubideak.

37. Gobernu Batzarraren funtzioen artean, Estatutuen 5. artikularekin loturan, ez da jaso txostenak, irizpenak eta ebazpenak ematearena. Hala ere, 85. artikulua aipamena egiten die, Elkargoarentzat diru-sarrera iturri diren heinean, baina ez du jasotzen zer izaera izango duten txosten edo irizpen horiek; hori horrela izanik ere, adierazi behar da ezen, lan profesionalak badira, elkargokideei dagozkien lantzat hartu beharko direla, Elkargoak ez baitu horiek gauzatzeko titulurik. Bestela, bere elkargokideekin lehian arituko litzateke Elkargoa²⁷. Elkargoak lan-harremanetako graduatuen berezko lan profesionalak egingo balitu, bi ondorio eragin litezke:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat izatea, zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea; horrenbestez, profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin liezaioke.
- Eragile batek (Elkargoak) lehenetasuna izatea Elkargoko kideen kaltetan, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, Elkargoak «beretzat har» lezake negozioa, zerbitzu jakin batzuk Elkargo barnean banatuta.

Ondorioz, aipatutako artikulua ezabatzeko erabakia hartu ezean, hitz hauek eranstea proposatzen da: «eskubide horiek ezingo dira inola ere etorri Kontseiluak industria-adarreko ingeniari tekniko lanbideari dagozkion zerbitzuak ematek».

7. Lanbide-sozietateak eta horiek Elkargoaren Erregistroan inskribatzea

38. EPLk honako hau ezartzen du 2. artikuluko 6. letraren bidez: «sozietate gisako jardun profesionalak legeetan aurreikusitakoa beteko du. Elkargo profesionalak edo mendeko erakundeek ezingo dute berez edo estatutuen zein elkargoaren gainerako arauen bitartez sozietate gisako jardun profesionala mugatu».

²⁷ MLBNk, 110/13 arau-proiektuari buruz eman zuen txostenean (Lanbideko Zerbitzu eta Elkargoei buruzko Legearen aurreproiektuaren gainekoa), gomendatzen du aurreproiektuan sar dadila elkargoek zerbitzu-merkatuan beren elkargokideekin lehiatzeko debekua. Zehazki, 34. artikuluan (Elkargoen funtzioak), aholkatzen du berariaz sar dadila Lehiaren Espainiako Batzorde iraungiak hainbat arau-proposameneko txostenetan gomendatutako debekua, Elkargoek bere elkargokideekin lehian merkatuan zerbitzuak emateari buruzkoa. 29. eta 30. orrialdeak. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.cnmc.es/es-es/cnmc/ficha.aspx?num=IPN%20110/13&ambito=Informes%20de%20Propuestas%20Normativas>.



39. Lanbide Sozietateen Legeak ezartzen duenaren arabera, legeetan aurreikusitako sozietate moldeetako edozeinen arabera osatu daitezke lanbide-sozietateak²⁸. Lanbide-sozietateko kontratua eskritura publiko bidez formalizatu behar da, eta eskritura hori Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharko da; une horretan hartuko du nortasun juridikoa. Era berean, egoitzaren arabera dagokion Lanbide Elkargoko Lanbide Sozietateen Erregistroan ere inskribatu beharko da. Horretarako, Merkataritzako Erregistratzaileak ofizioz jakinaraziko dio Lanbide Sozietateen Erregistroari inskripzioak gauzatu direla²⁹.

40. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

25. artikulua

1. Lan-harremanetako graduatuak bere lanbidea bete ahal izango du lan-harremanetako beste graduatu batzuekin edo lanbide-jarduera ezberdineko beste pertsona batzuekin batera, bulego kolektibo modura edo lanbide-sozietate gisa, legeak baimentzen duenaren arabera.

2. Elkartutakoek beren kabuz hartutako itunek araupetuko dute taldea; betiere legeekin, lanbide-duintasunarekin eta lanbidea erregulatzen duten arauekin edo etorkizunean arautu dezaketenekin kontraesanean ez badaude.

3. Bulego kolektiboek indarrean dagoen antolamendu juridikoak aitortutako edo etorkizunean aitortu daitezkeen elkartzeko edozein modu har dezakete; betiere lan-harremanetako graduatuaren lanbidearen duintasunaren eta izen onaren aurka ez baldin badoaz.

26. artikulua

1. Lan-harremanetako graduatuen bulego kolektiboak Elkargoko Elkartetako Erregistroan inskribatuko dira, baina inskribatu aurretik Gobernu Batzordeak antolaketa eta jarduera arautzen dituen itunak baimendu beharko ditu. Erregistroan bulego kolektiboa osatzen duten lan-harremanetako graduatuen izenak eta gorabeherak ipiniko dira, eta bai elkartzeko itunak ere. Elkartearen eratzea egiaztatzen duen agiriaren edo eskritura publikoaren kopia baimendua aurkeztu beharko da, halaber.

2. Lan-harremanetako graduatuak bere erakundeko itun arautzaileetan sortzen diren aldaketak jakinaraziko ditu, erregistroan inskribatzeko, eta erakundea osatzen duten lan-harremanetako graduatuen izenak eta gorabeherak.

3. Bulego kolektibo batean sartuta dauden lan-harremanetako graduatu guztiak elkargoko kide izan beharko dute, beren kabuz jarduten duten elkargokide gisa.

72. artikulua.- Lan-harremanetako graduatuek egindako faltak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

(...)

²⁸ 2/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, lanbide-sozietateei buruzkoa (2007ko martxoaren 16ko BOE, 22 zk.) abenduaren 22ko 25/2009 Legeak aldatua (BOE-A-2009-20725).

²⁹ Ikus Lanbide Sozietateen Legearen 1., 7. eta 8. artikulua.



3. Falta astunak dira (...) k) Bulegoen, sukurtsalen edo bulego kolektiboen jakinarazpenari buruz edo, hala egokituz gero, baimenari buruz ezarritako preskripzioak ez betetzea

41. Lanbide-sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatzeak nortasun juridiko hori hartzea dakar. Merkataritzako erregistratzaileak Elkargoari jakinarazi beharko dio inskripzioa, hark, bere aldetik, Elkargoaren Lanbide Sozietateen Erregistroan sar dezan.

Estatutuetan babes-araubide bat ezartzen da Elkargoaren Lanbide Sozietateen Erregistroan sartuko diren lanbide-sozietateei dagokienez, eta orobat ezartzen da sozietate-itunak Gobernu Batzarraren baimena jaso behar duela. Araubide hori Lanbide Sozietateen Legean ezarritakoaren aurka doa; izan ere, ez du beharrezkotzat ezartzen Elkargoaren aldetik inolako baloraziorik egitea; aitzitik, Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoen sozietatea automatikoki inskribatzen da.

Horregatik, ezabatu behar da Gobernu Batzarrak baimena emateko betekizuna, eta Lanbide Sozietateen Legean ezarritakora egokitu behar da lanbide-sozietateen estatutu-erregulazioa. Era berean, ezabatu beharko da 72.3.k artikuluan falta astuntzat xedatutakoa; hau da, bulegoen, sukurtsalen edo bulego kolektiboen jakinarazpenari buruzkoa edo, hala egokituz gero, baimenari buruz ezarritako preskripzioak ez betetzeari buruzkoa.

8. Lan Harremanetako langileen laguntzaile-txartela

42. Estatutuek betebeharrak hauek ezartzen dizkiete elkargokideei:

21. artikulua

(...)

4) Lan-harremanetako graduatuen enplegatu guztiek profesionalaren kontura eta haren menpe zerbitzuak ematen dituztenean, lanbide-elkargoak emandako laguntzaile-txartela eduki beharko dute. Bertan datu pertsonalak, argazkia eta indarraldia jarri beharko dituzte; indarraldia sei hilabetekoa izango da (...). Agiri hori elkargora itzuli beharko da, enplegatuak baja ematen badu.

43. Elkargoak lan-harremanetako graduatuen zerbitzuak kudeatzen diren moduan esku hartzen badu, gainditu egiten ditu legeak erakunde horiei esleitutako funtzioak. Lan-harremanetako graduatuen enplegatuak Elkargoak bere elkargokideekin erlazioan jaulkitako txartel batez hornitu beharrak ere mugak ezartzen dizkio lan-harremanetako graduatuak bere burua antolatze duen askatasunari.



Aipatutako txartela betebeharrak izateak berekin dakar zerbitzuak elkargoko kide den profesionalaren kontura eta mende ematen dituzten pertsonen gaineko kontrola, eta hori ez da ez koherentea ez premiazkoa; aitzitik, Elkargoak jardun profesionala kontrolatzeko bitarteko izan daiteke.

Horregatik, ezabatzea da betekizun hori.

9. Publizitatea

44. Omnibus legeak Elkargo Profesionalei buruzko Estatuko Legea aldatu zuen, Elkargoko profesionalen merkataritza-mezueta Legeak aurreikusi gabeko mugak ezartzeko ahalmena kenduz; horrenbestez, elkargoek beren arauetan publizitate-kontuei lotuta ezar ditzaketen xedapenek —esate baterako, lanbidearen independentzia eta osotasuna babestekoak— hauxe baino ezin diezaiekete eskatu elkargokideei: legeekin bat etortzea.

Hala, lege horren 2.5. artikuluko bigarren paragrafoan zera adierazten da: «Elkargoaren estatutuaren edo Elkargoek onartzen dituzten kode deontologikoetan, berriazko aurreikuspenak jaso daitezke, elkargokideei eskatzeko komunikazio-kontuetan legearekin bat datorren jokabidea izan dezaten. Horren xedea da lanbidearen independentzia eta osotasuna babestea, bai eta lanbide-sekretua ere, psikologoaren kasuan».

45. Horrenbestez, Elkargoaren arauak edo kode deontologikoak ezin dituzte muga handiagoak ezarri azaroaren 11ko Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorra baino. Gainera, kontuan izan behar da lege horren 5.1. artikuluan hau ezartzen dela: «Gai hauei buruzko publizitatea berei buruzko arau bereziek arautuko dute edo aurretiazko administrazio-baimenaren araubidearen mende jarri ahal izango da: material edo produktu sanitarioak eta erregelamendu tekniko-sanitarioen mende daudenak; pertsonen osasunarentzat, segurtasunarentzat edo ondarearentzat arriskugarriak izan daitezkeen produktu, ondasun, jarduera eta zerbitzuak; eta zozketa-, desafio- edo zori-jokoak. Araubide hori ere ezarri ahal izango da konstituzioan aitortutako balioak edo eskubideak babesteko behar denean»³⁰.

46. Kontu hori erregulatua dago aldaketa-proposamena jaso duten indarreko Estatutuaren:

15. artikulua Elkargokideen betebeharrak:

³⁰ 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa (1988ko azaroaren 15eko BOE, 274. zk.). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1988-26156>



M) Elkargoari gutxienez hilabete lehenago jakinaraztea beraren zerbitzuekin egin nahi den publizitatea, Gobernu Batzordeak beharrezkoa den baimena eman dezan, estatutu hauetako 22. artikuluan ezarrita bezala.

72. artikulua

(...)

3.- Falta astunak dira:

(...)

j) Lan-harremanetako graduatu gisa ezagutarazteko publizitate-baliabideen erabileraren berri elkargoari emateko derrigortasuna ez betetzea, publizitateari buruz elkargoko organoek xedatzen dituzten arauak haustea, eta publizitatea Gobernu Batzordearen baimena eskuratu gabe egitea.

47. Elkargoak, aztergai dugun aldaketaren bitartez, ezabatu egin ditu elkargokideek bere zerbitzu profesionalen publizitatea gauzatzeko ezarrita zeuden betekizunak, baita horiek ez betetzearen zehapen-ondorioak; beraz, egokitzat jo behar da.

10. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

48. Estatutuek honako hau ezartzen dute:

85. artikulua

Hauak dira elkargoaren baliabide arruntak:

A) Sartzeagatik edo gaitzegatik kobratzen direnak, ohiko eta aparteko kuotak, derramak ere barne.

B) Elkargoko ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen etekinak.

C) Ordaindutako txosten, irizpen, azterketa eta bestelako zerbitzuak lantzeko ezartzen diren eskubideak.

D) Elkargokideen sinadura aitortzeagatik edo legeztatzeagatik eskubideak.

E) Ziurtagiri fede-emaileak ematetik eta agiriak konpultsaztetik edo ematetik lortutako diru-baliabideak.

F) Elkargoko inprimakien eta argitalpenen salmentatik, eta ikastaroen, mintegien eta hitzaldien antolaketatik eratortzen direnak.

G) Gobernu Batzordeak ezarritako beste kontzeptu batzuegatik eratortzen direnak, legezkoak baldin badira.

86. artikulua

A) Jatorri publiko edo pribatuko dotazioak edo diru-laguntzak.

B) Herentziaz eta doako edo kostu bidezko tituluekin eskuratutako beste edozein ondasun.



C) Legez eratoritzen den eta baliabide arrunt ez den beste edozein.

87. artikulua

Elkargoa zaintzeko beharrezkoak diren gastuak, arruntak nahiz apartekoak, elkargo mota anitzen artean banatuko dira, proportzionaltasuna, elkargokide kopurua eta beste gorabehera batzuk kontuan hartuta, Gobernu Batzordearen iritziz zuzenena den banaketa lortu ahal izateko.

49. Zera dio Lehiaren Espainiako Batzordeak Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondorengo lanbide-elkargoetara buruz egindako txostenak: «ikuspegi ekonomiko batetik, Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean, batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da, eta gainera, Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak erabiltzaileek eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea eragin dezake»³¹.

50. Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, kuota horiek Elkargoak elkargokideei ematen dizkien zerbitzuen arabera kalkulatu beharko lirateke, eta ez elkargokideen lanaren ordainsarien arabera.

Bestalde, doitu beharko da ordainsariak elkargoaren bitartez kobratzeko zerbitzua eskatzen dutenek ordaindu beharreko zenbatekoa, Elkargoari izapide horrek dakarkion kostuaren heinekoa izan dadin; kostuak orekatua izan behar du, emandako zerbitzuarekiko proportzioskoa, ez da kalkulatu behar bezeroari fakturatu zaion funtzioaren arabera (zenbateko horri buruzko ehunekoak), eta ez ditu barne hartu behar kasuan kasuko prestazio espezifikoaz besteko kostuak.

11. Lan-harremanetako graduatuak lehiaren araudiaren mende egotea

51. EPLren 2. artikulua ezartzen duenez, lehia libreko araubidean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez. Lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari

³¹ Lehiaren Espainiako Batzordea, *op. cit.*, 57. orria.



buruzko legeria orokorrak eta espezifikoak eraenduta egongo dira aurrerantzean ere lanbide-jardunaren alderdia.

52. Komeni da Estatutuetan berariaz aipa dadila lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean gauzatuko dela. Hala, 18. artikuluan beste letra bat sartzea gomendatzen da, idazketa honekin:

«Lehia askeko araubidean egingo dira Elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Babeserako Legearen mende, zerbitzuen eskaintzari, horien prezioak ezartzeari eta zerbitzu-prestazioaren gainerako baldintzei dagokienez».

IV. ONDORIOAK

Lehenengoa. Lan Harremanetako Graduatuen lanbide-jarduna lehia askeko araubidean gauzatu behar da, eta Lehiaren Babeserako Legearen mende egongo da erabat, jardunean sartzeko (elkargokidetze bakarra), ordainsarien zehaztapenean edo Elkargoaren ordainsari-kobrantsan.

Elkargoen jarduketak elkargoko kideen interes korporatiboen defentsa soilaz harago joan behar du; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak ere babestu behar ditu, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat etorriz.

Bigarrena. Lan-harremanetako graduatuek elkargoan kide izateko betekizuna, Omnibus Legearen osteko erregelamendu-mailako arau batean dagoenez jasota, zuzenbidearen aurkakoa da.

Hirugarrena. Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Arabako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialaren Estatutuetako artikulua hauek aldatu beharra adierazten du:

8. D) (Elkargokide izateko baldintzak: Elkargoan onartua izateko eragozpenak edo lanbidean jarduteko debekuak)

18.2 (Lehia libreko araubidean jardutea lanbidean)

24 (Bateraezintasunak)

26 (Lanbide-sozietateak)

85.c (Elkargoaren baliabide arruntak)

Artikulu hauek ezabatu behar dira:

13.1 (Lanbidean lurralde osoan jarduteko askatasuna, Kontseilu Nagusiak nahiz Autonomikoak ezarritako betekizunei dagokienez)

21.4. (Lan Harremanetako langileen laguntzaile-txartela)



72.3.k) (Bulegoen, sukurtsalen edo bulego kolektiboen jakinarazpenari buruz edo, hala egokituz gero, baimenari buruz ezarritako preskripzioak ez betetzearen ondoriozko falta astuna)

72.2.l) (Benia eskatzeko betebeharra ez betetzearen ondoriozko falta astuna)

Bilbon, 2016ko azaroaren 15ean